

UDAL-BATZARRA 7/05

UDAL-BATZARRA, 2005eko uztailaren 7an EGINDAKO OHIZKO BILKURARI DAGOKION AKTA

PARTAIDEAK:

ALKATEA:

Fidel Azpiroz Arrillaga

ZINEGOTZIAK:

Jose Ignacio Otermin Garmendia
Nieves Alarcos Martinez
Jesus M^a Arsuaga Lizaso
Mikel Zubillaga Galarraga

IDAZKARI AKZIDENTALA:

Garikoitz LEKUONA IZETA

ANOETAko Udaletxean, 2005ko uztailaren 7an arratsaldeko zortziak eta hamar direnean eta aurrez dei egin ondoren, Udal-Batzarra elkartu da, Ohizko Bilkura egin asmoz Fidel Azpiroz Arrillaga alkate jaunaren mahaiburutzapean eta alboan aipatzen diren Zinegotzi guztiek parte hartzen dutelarik, Kepa de la Iglesia, M^a Carmen Egurza eta Silvia Dos Santos Leite Zinegotziak ez dira etorri eta ez dute arrazoirik adierazi; idazkari akzidentala, Garikoitz Lecuona Izeta jauna.

1.- 2005EKO MAIATZAREN 5EAN ETA EKAINAREN 14EAN OSPATURIKO AKTEN ONESPENA.

2005eko maiatzaren 5eko Ohizko Bilkurari dagokion akta eta 2005eko ekainaren 14ko Ohizkanpoko Bilkurari dagokion akta aho batez onesten dira.

2.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA, 177TIK 272RA BITARTE, BIAK BARNE.

Alkate jaunak azken apean 177tik 272ra zenbaituak dauden ebazpenak onartu direla jakitera ematen eta norbaitek ezer esateko duen galdegiten du.

Bertaratutako batek 182. dekretua gaztelera hutsean dagoela aditzera eman eta alkatea Euskara Batzordeko buru izanik dekretua gutxienez euskaraz idatzia egon beharko zuela jakin beharko lukela dio.

Alkate jaunak arrazoia duela erantzuten du; Euskararen ordenantzak halaxe erregulatzen duela adierazi dio eta organizazio mailan sortutako lapsus bati erantzuten diola

jakinarazi. Hala ere, dekretu guztietatik honetan soilik gertatu dela azpimarratu du; eskaera gazteleraz jaso zela eta akats bat tarteko gazteleraz soilik erantzun zitzaioela.

Bertaratuko batek alkateak horrelakorik gehiago ez dela gertatuko adieraztea gustatuko litzaioke.

Bertaratutako batek dudak azaltzen ditu 205. dekretuaren edukiari buruz, dekretu hau aurrez aipatutako 182. artikularekin lotuz, izan ere eraikuntza lizentziari buruzko dudak sortzen ditu, kontutuan hartuz batez ere Anoetako Udaleko Idazkari andereak legalitateari buruzko erretserba egin baitu arkitektoaren txostena falta delako. Honela, kezka azaltzen du eraikuntza lizentziaren inguruan, jakin nahi duelarik zeren baitan edo nola emango zaion lizentzia hau Orbinox S.A.-ri.

Alkate jaunak azaltzen dio Orbinox SAK hasierako dokumentuak pausuka aurkezten joan dela, naiz eta hasierakoak denak batera aurkeztu. Baina gerora aldaketak aurkezten joan dira poliki-poliki, horien artean Hirigintza Proiektua. Udalak hau ikusirik, Hirigintza Proiektua hasieran aurkeztutako proiektuak jaso bezala exekutatu behar dela jakitera eman zion Orbinox SARI, Arau Subsidiarioari egokitzen zaiona hasierako proiektua baita. Beste hainbeste gertatzen da Xehetasun Azterketarekin, hainbat aldaketa aurkezten dituzte prozesu osoan zehar eta azkenean aldaketa guztiak Testu Bateratu baten bidez aurkeztu dezala eskatzen zaio Udaletik. Eta 205. dekretuan jasotzen diren baldintza guztiak udal aholkulari juridikoaren eta udala arkitektoaren aholkularitzarekin jartzen direla jakitera ematen dio alkateak; izan ere, arkitektoaren txostenik ez egon arren, biek adostutako baldintzak jasotzen dira ebazpenean.

Bertaratutako batek berriro ere aditzera ematen du ez duela ulertzen zergatik ez zaion 182. ebazpenaren arabera eraikuntza lizentziarik ematen. Zeren arabera ez zaio ematen eraikuntza lizentzia hau.

Alkate jaunak aurretik beste hainbat pauso eman behar direla erantzuten dio.

Idazkari akzidentalak argitzen dio bertaratutakoari eraikuntza lizentzia ez ematearen azken arrazoia legeak aurretik betetzea eskatzen dituen urratsak ez bete izanagatik dela. Izan ere, besteak beste, Hirigintza Proiektua onartu beharra dago aurretik eta horregatik, 205. dekretuan Hirigintza Proiektua hasierako izaeraz onartzen denez, ezinezkoa zen aurretik, 182. dekretuan, eraikuntza lizentzia ematea.

Bertaratuko batek galdegiten du pabiloi berriak eraikitzeagatik Orbinox SAK zenbateko zerga eta tasa ordaindu beharko duen. Estimazio ekonomikorik egin den.

Alkate jaunak oraindik ez dela estimazio ekonomikorik egin jakitera ematen dio, izan ere ez zaio oraindik eraikuntza baimenik eman eta beraz, baimena hau eman bezain pronto kalkulatu da zenbatekoa izango den ordaindu beharreko zerga eta tasa.

Jose Ignazio Otermin zinegotziak, idazkariak egindako legalitate erreserbari buruz, bertaratuari jakitera ematen dio arkitektoak txostena egin zuela bere garaian, Raimundo

Mendiburu arkitektoak hain zuzen ere. Eta txosten hau guztiz positiboa izan zela eta aldeko txosten hau espedientean jaso dagoela. Baina Nekane Agirresarobe idazkari andreak zergatik eskatzen duen ez du ulertzen. Beraz, txostena aldekoa bazen ere, beraien ustetan Arau Subsidiarioei egokitzen ez zitzaenez, Jokin Izagirre abokatuaren aholkularitzarekin hainbat baldintza betebeharezkoak direla adieraztea komenigarria ikusten dute eta hala zehaztu 205. dekretuan. Nahiz eta txostenik ez egon, azken dekretua udal arkitekto aholkulariaren eta udal aholkulari juridikoaren artean adostuta egina dago.

Bertaratutakoak azalpenak eskatzen ditu zein den Orbinox SAK eraikitako pabiloi berrien egoera Arau Subsidiarioei dagokionez.

Jose Ignazio Otermin zinegotziak azalpenak ematen dizkio. Eraikina eraikitzeko aukera bazegoela dio, eta egin duten moduan egiteko aukera era, hau da, orientazio aldaketa eginez, baina inolaz ere sestrak GI-3650 errepedeak dituenak baino baxuagoak izatea adibidez. Horrexegatik, eta beste hainbat puntu betebeharezkoak zirela ikusten zutelako, eskatu zitzaie 205. dekretuan aipatzen diren baldintza guztiak betetzea.

Alkate jaunak ebazpenen berri eman dela aditzera ematen du.

3.- ANOETA LANTZEN S.A.: AZTERKETA BATZORDEAREN TXOSTENA ETA SOZIJETATEAREN ESTATUTOAK ONESTEKO PROPOSAMENA.

Alkate jaunak azken udal-batzarrean Batzorde eratzea erabaki zela jakitera ematen du eta Batzorde honek memoria eta estatutuak prestatzeko zeregina zuela. Estatutuen 2. artikuluan jasotzen direlarik sozietate honen helburuak alkate jaunaren esanetan:

“Sozietatearen xedea da bizitegi-, industria- eta era guztietako zerbitzu-erakinak jartzeko lurzorua sustatu, antolatu, urbanizatu, erosi eta saltzea, beste forma batzuetan sustatu, proiektatu, eraiki, erosi, saldu edo lagatzea, etxebizitzak, jarduera ekonomikoak, zerbitzuak eta komunitate-zuzkidurak kudeatzea, baita Anoetaren eta bere biztanleen onurakoak izan daitezkeen erabilgarritasun publiko eta pribatuko kultura, kirol, aisia edo bestelako jarduerak ere.”

Helburua Udala Anoetaren garapenaren buru izatea dela dio; ahal den heinean ekimen pribatua baztertuz, interesa partikularrak, etekin partikularrak saihesteko.

Bertaratutako batek harridura azaltzen du. Zertarako egiten den ez du ulertzen, zehaztutako helburuak Udalak berak bete ditzakeenean.

Jose Ignazio Otermin zinegotziak azaltzen du sozietate anonimo hau ez dela anonimo-anonimoa. Izan ere, Anoetako Udalak zuzenduko du eta sozietatearen aurrekontua Udalarena izango baita. Anoetako Udalak eratuko du Administrazio Kontseilua. Anoetako Udalak erabakiko duela zer, non eta noiz egin behar den, baina kudeaketa Udaletik kanpo egingo dela, soilik kudeaketa, tramiteak arindu asmoz. Baina erabakia, azken erabakia beti Anoetako Udalak izango duela.

Alkate jaunak azpimarratzen du enpresa honek Udalak enkargatzen dizkion lanak bideratuko dituela.

Bertaratutakoak galdegiten du ea zerbait zehatza dagoen guzti honen atzean.

Jose Ignazio Otermin zinegotziak erantzuten dio gauzak egitean beti atzean zerbait dagoelako egiten direla. Adibidez, herria eta Ikastolaren arteko eremua landu beharra dago Hirigintza ikuspegitik, baina zer erabaki behar den Anoetako Udalak zehaztu beharko du eta onartu ere. Area horretarako Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala egin beharko da eta datorren asteetan horren aurrerapena biltzen duen txostena jasoko da.

Bertaratutako batek 15. artikulua edukia ulertzen duela adierazten du. Sozietateko kontseilari izateko Udalbatzako alkate edo zinegotzi izan behar dela . Baina aldiz, 16. artikulua ez. Ez duela ulertzen kontseilari karguaren iraupena bost urtekoa izatea, zinegotziak lau urteko kargua dutenean, legegintzaldia lau urtekoa denean.

Jose Ignazio Otermin zinegotziak erantzuten dio hori legeak hala zehazten duelako dela. Baina ez dagoelako arazorik, zeren legegintzaldia amaituta, zinegotzia izateari uzten dionean zinegotzi batek ezin izango du kontseilari izaten jarraitu.

Memoria eta estatutuak aho batez onartzen dira eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta herrian gehien irakurritako egunkari batean gutxienez argitaratuko dira.

4.- BIZKOR SYSTEM SENTENTZIAREN BERRI EMATEA.

Jose Ignazio Otermin zinegotziak epaiaren berri ematen du eta ondorio gisa bere garaian ezarritako isuna bertan behera geratzen dela azpimarratu. Ondorioz, aktibitatea legezatu beharko dute eta horretarako izapidetze guztiarekin jarraitu beharko da berriro.

5.- IZAERA PERTSONALEKO DATUAK DITUZTEN 1994 URTEKO FITXEROEN EZEZTAPENA DATU BABESERAKO ERREGISTRO OROKORRETIK.

Alkate jaunak 1994 urteko fitxeroak bikoiztuta geratzen direla aditzera ematen du eta 2004an helarazitako azken fitxeroak legeak eskatzen dituen betekizunak betetzen dituztenez eta azkenekoak direnez, 1994 urtekoak ezeztatu beharko dira.

Aho batez onartzen da.

6.- ANOETA UDALEKO BARNE ANTOLAMENDUAREN HOBEKUNTZA TXOSTENA.

Alkate jaunak txostenaren berri ematen du, Anoetako Udaleko barne antolamenduaren hobekuntzarako hiru zutabeen berri emanez:

- Herritarrei arreta eskaintza hobetzea.
- Lan prozedurak arautu eta sistematizatzea.
- Informazio azpiegitura egokia ezartzea eguneroko lanen kalitate politika gauzatu eta bermatzekotan.

Hiru zutabe hauen azken helburua beti ere hiritarrari eskaintzen zaion zerbitzua kalitatezkoa izatea delarik, nahiz eta aipatutako hiru oinarriak elkar loturik egon eta bata zein bestea ezinbestekoa izan.

Bertaratutako batek galdetzen du ea Anoetako web orriak funtzionatzen duen.

Alkate jaunak erantzuten dio egun ez duela funtzionatzen ez duelako ezer eskaintzekorik. Aurretik edukiz bete beharra dago eta gainera Udalak ezin badu ondoren era egokian gai ezberdinei jarraipena eman, ez du merezi. Beraz, lehenik informazio azpiegitura egokitu beharra dago lehenik eta gero edukiz bete.

Txostena aho batez onartzen da.

7.- GALDERA-ERREGUAK.

Alkate jaunak galdera-erregurik dagoen galdegiten du.

Bertaratutako batek jakitera ematen du Anoetarrok Auzolanean herri plataformak 2005eko maiatzaren 10an mozio bat aurkeztu zuela “Anoetarron borondatea oztopo guztien gaineratik” izenburupean eta galdegiten du noiz aztertuko den, zein udal-batzarretan.

Alkate jaunak erantzuten dio denok orokorrean postura baikorragoak hartzen badute erresagoa dela gauzak bideratzea eta gai ezberdinak lantzea. Egungo egoera udal gobernu honek ez duela sortu adierazten dio eta ondorioz, udal-gobernu honek ez duela bere eskutan soluziorako aukerarik. Bitartean plataformaren jarrera kalean adierazten dena dela dio, pankartak, panfletoak mehatxuekin, eta abar.

Bertaratutako batek alkate jaunari erantzuten dio ez duela galderari erantzun, galdera mozioa noiz aztertuko duten omen da.

Alkate jaunak gerturatze jarrerak ematen ez diren heinean ez direla gauzak bideratuko erantzuten dio. Eta egun zentzu honetako borondaterik ez dagoenez ezinezkoa dela dio.

Bertaratutako batek berriz, borondatea ez duena egungo udal-gobernua dela dio eta soluzioa, borondaterik eduki ezker, badagoela.

Jose Ignazio Otermin zinegotziak erantzuten dio soluzioak bilatu aurretik giroa normalizatu beharra dagoela. Zinegotzien argazkiak dianaz marrazturik, mehatxuak.....horrelako giroa badago ez eskatu soluziorik. Kritika politikoa egitea legezkoa da eta onartu egiten da, baina bizi den giroan soluzioak eskatzea ez.

Alkate jaunak, bere aldetik, jakitera ematen du ez duela mozioa tratatua izango ez denik esan. Tratatu dela, baina noiz izango den ez diola zehazten; borondate eta jarreraren arabera izango dela.

Bertaratutako batek udal gobernuari bilera bat egin eta soluziobide bat aurkitzeko proposamena luzatzen dio; borondatea badago posiblea dela azpimarratuz eta Azkoitiko adibidea aipatuz.

Jose Ignazio Otermin zinegotziak erantzuten dio dena giroaren arabera izango dela.

Bertaratutako batek erantzuten dio udal gobernuaren esku dagoela gaia. Egungo jarreraren jarraituz gero ez dutela lagunduko esanez.

Jose Ignazio Otermin zinegotziak erantzuten dio udal gobernuak hainbat adibideen bidez adierazi duela bere borondate ona eta besteen aldetik ez dutela holako jarrerarik ikusi.

Eta beste aztergairik ezean, Alkate jaunak amaitutzat eman du bilkura, iluntzeko bederatziak eta bost direnean; guzti honetaz, nik Idazkari akzidentalak, fede ematen dudalarik.